

UDAKO PROPOSAMENAK 2026

APIRILA - MAIATZA | UZTAILA - ABUZZTUA - IRAILA



UDABERRI - UDA - UDAZKEN EGUTEGIA
CALENDARIO PRIMAVERA - VERANO - OTOÑO

PROPOSAMENEN BEHIN-BEHINEKO DATEN EGUTEGIA
CALENDARIO DE FECHAS PROVISIONALES DE LAS PROPUESTAS

AZALPENA

Ondoren, apiriletik irailera bitartean antolatutako ibilaldi eta irteeren **behin-behineko egutegia aurkituko duzue**. Datozen denboraldian aurreikusitako bidaiei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua, eta horrela, parte hartu nahi izanez gero, zuen oporrak edo libre dituzuen egunak aldez aurretik planifikatu ahal izango dituzue.

Ahalegin guztiak egingo ditugu proposatutako datak mantentzeko. **Hala ere, kontuan izan behar da balitekeela aldaketa txikiak gertatzea (egun bat gora edo behera mugitzea, adibidez), aterpetxeak, estantziak edota gure kudeaketatik kanpoko beste erakunde batzuekiko koordinazioaren ondorioz.**

Beraz, egutegi hau hasierako proposamen bat da, zuen antolaketa errazteko sortua.

Behin-betiko datak urtarrilaren erdialdean edo amaieran baieztatzea aurreikusten da.

Eskerrik asko zuen interesagatik eta mendia elkarrekin partekatzeko gogotsu jarraitzeagatik!



MENDI GIDARIA

GARMENDI MENDI GIDARIA

Ibai Iturria Garmendia naiz, Beran jaioa eta hazia, naturarekiko eta kirolarekiko pasioa piztu zidan lekua.

2013.urtean, bizitzari bira bat ematea erabaki nuen eta mendian murgildu nintzen, beti erakarri ninduen ingurunean. Nire bidea trail running-ean hasi zen, kirolarekiko maitasuna naturarekin uztartzeko aukera eman zidan diziplina batean. Hala ere, lesio batek lehiaketak uztera behartu ninduen eta horrek nire helburuak birplanteatzera eta mendizale gisa nuen prestakuntzan sakontzera eraman ninduen.

2022 eta 2024 urteen artean, mendiarekiko pasioan beste urrats bat ematea erabaki nuen eta mendiko gidari gisa osatu nituen ikasketak, ingurune horrekiko nire maitasuna lanbide bihurtuz. Prozesu horri esker, nire trebetasun teknikoak hobetzeaz gain, pasio hori beste batzuekin partekatzen eta mendian erronkak gaingitu nahi dituztenak modu seguruan gidatzen ikasi nuen.

Gaur, hemen nago zure hurrengo erronkan laguntzeko. Ohorea izango da nire esperientzia eta ezagutza zurekin partekatzea abentura ahaztezin honetan gidatzen zaitudan bitartean mendiak eskaintzen dizkigun paisaia paregabeak elkarrekin arakatuz. Prestatu erronkarako, mendia gure zain dugu eta!



IBAI ITURRIA GARMENDIA

TD2 - MENDI ERTAINEKO MENDI GIDARIA (AEGM 2195 - UIMLA)



APIRILA

BORTZIRIAK XTREME 2026 (2. EDIZIOA)

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
		1	2 BORTZIRIAK XTREME 2026	3 BORTZIRIAK XTREME 2026	4 BORTZIRIAK XTREME 2026	5 BORTZIRIAK XTREME 2026
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Bortziriak Xtreme 2026

Itzuli gara! Bigarren edizioa dator: 4 etapako ibilbidea, Bortzirietako muga guztia zeharkatuz, Gipuzkoa eta Lapurdi artekoa barne!

mendi ertainetako ibilbidea da, bai... baina fisikoki oso exigentea!

Datuetan ikusten da: 4 etapa, 85 km eta 4.900 m desnibel positiboarekin.

Esperientzia bakarra, egoera fisiko oso ona duten eta erronka berriei aurre egiteko gogoz dauden pertsonentzat.

MAIATZA

BAZTANGO MENDI ZEHARKALDIA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
				1 BAZTANGO MENDI ZEHARKALDIA	2 BAZTANGO MENDI ZEHARKALDIA	3 BAZTANGO MENDI ZEHARKALDIA
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Baztango mendi zeharkaldia

Baztango bihotzean barrena egiten den zeharkaldi zoragarri honen 4. edizioa dator!

Esperientzia paregabea da, bailarako ogibide tradizionalak ezagutzeko, bere historiaz gozatzeko eta tokiko produktuak bertako herritarren eskutik zuzenean dastatzeko.

3 etapako ibilbidea da, oso irisgarria eta presarik gabe ibili, ingurunearekin konektatu eta Baztango kulturaz gozatu nahi dutenentzat pentsatua, esfortzu fisiko txikia eskatuz.

UZTAILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
		1 TOUBKAL 4167M EXPRESS	2 TOUBKAL 4167M EXPRESS	3 TOUBKAL 4167M EXPRESS	4 TOUBKAL 4167M EXPRESS	5 TOUBKAL 4167M EXPRESS
6	7	8	9	10 MENDI UDALEKU0AK BELAGUAN 15-17 URTE	11 MENDI UDALEKU0AK BELAGUAN 15-17 URTE	12 MENDI UDALEKU0AK BELAGUAN 15-17 URTE
13 MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 15-17 URTE	14 MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 15-17 URTE	15 MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 15-17 URTE	16 MENDI UDALEKUAK BELAGUAN 15-17 URTE	17	18	19
20 3000 IBONES 4 EGUN	21 3000 IBONES 4 EGUN	22 3000 IBONES 4 EGUN	23 3000 IBONES 4 EGUN	24	25 MIDI D'OSSAU ITZULIA + PEYREGET	26 MIDI D'OSSAU ITZULIA + PEYREGET
27	28 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 4 EGUN	29 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 4 EGUN	30 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 4 EGUN	31 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 4 EGUN		

Uztailerako proposamenak

- **Toubkal Express:** 5 eguneko espedizio azkarra, Toubkal mendira (4.167 m) igoera saiaturaz – Marokoko (Atlas Garaia) mendirik altuena.
- **3000 ibones:** Pirinioetan oso ezaguna den trekkinga. Guk **MARMOTA** modalitatea proposatzen dugu: 4 eguneko zeharkaldia, 57 km eta 3.280 m D+.
- **Midi D'ossau-ri itzulia:** 2 eguneko ibilbide zirkularra, Midi D'Ossau mendi mitikoari itzulia. Gaua Pombie aterpetxean. 25 km | 1.800 m D+.
- **Ruta de las Golondrinas:** Nafarroa eta Frantziako Pirinioetan egiten den zeharkaldi zirkularra, Belagua, Linza eta Frantziako Pirinioetako parajeetan barrena.
 - Gure aukera **Golondrina Klasikoa da:** 4 etapa, 62 km, 3.500 m D+.

ABUZTUA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
					1	2
3	4	5	6	7 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	8 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	9 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000
10 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	11 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	12 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	13	14	15 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa	16 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa
17 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa	18 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa	19 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa	20 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa	21 LA SENDA DE CAMILLE 7 etapa	22	23
24	25 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 3 EGUN	26 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 3 EGUN	27 RUTA DE LAS GOLONDRINAS 3 EGUN	28	29	30
31						

Abuztuko proposamenak

- **Toubkal + Timezguida + Ras:** 6 eguneko bidaia Marokora, Atlas Garaiko 3 tontor altuenak igotzeko. 3 egun mendian.
- **La senda de Camille:** 7 etapako zeharkaldi mitikoa, Parque Natural de los Valles Occidentales eta Pyrénées Parke Nazionala zeharkatzen dituen.
- **Ruta de las golondrinas (Golondrina klasikoa):** Nafarroa eta Frantziako Pirinioetan egiten den zeharkaldi zirkularra, Belagua, Linza eta Frantziako Pirinioetako parajeetan barrena.
 - Gure aukera Golondrina Klasikoa 3 egunekoa.

IRAILA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDEA
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12 MIDI D'OSSAU ITZULIA + PEYREGET	13 MIDI D'OSSAU ITZULIA + PEYREGET
14	15	16	17 3000 IBONES 4 EGUN	18 3000 IBONES 4 EGUN	19 3000 IBONES 4 EGUN	20 3000 IBONES 4 EGUN
21	22	23	24 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	25 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	26 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	27 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000
28 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	29 TOUBKAL + TIMESGUIDA + RAS 3X4000	30				

Iraileko proposamenak

- **3000 ibones:** Pirinioetan oso ezaguna den trekkinga. Guk **MARMOTA** modalitatea proposatzen dugu: 4 eguneko zeharkaldia, 57 km eta 3.280 m D+.
- **Midi D'ossau-ri itzulia:** 2 eguneko ibilbide zirkularra, Midi D'Ossau mendi mitikoari itzulia. Gaua Pombie aterpetxean. 25 km | 1.800 m D+.
- **Toubkal + Timezguida + Ras:** 6 eguneko bidaia Marokora, Atlas Garaiko 3 tontor altuenak igotzeko. 3 egun mendian.

PREZIOA

Oraingoz, ez daude proposamenentzako prezio eguneratuak eskuragarri.

La Senda de Camille, Enaren Bidea (Ruta de las Golondrinas) eta 3000 Ibones zeharkaldien kasuan, prezioak eta behin betiko datak urtarrilaren amaieran egongo dira eskuragarri (ahalik eta azkarren ixteko lanean ari gara).

Gainerako proposamenetan, prezio itxiekin eta informazio osoarekin egindako dokumentuak 2025. urtea amaitu baino lehen bidaliko dira.

PREZIOAN SARTZEN DA

- Jardueraren aurretiko aholkularitza.
- Zeharkaldi guztien erreserba kudeaketa.
- Mendizalearentzako poltsa opari bat (zeharkaldiaren arabera).
- Larrialdi egoeretarako segurtasun materiala. Satelite komunikazioa.
- Aterpetxeetan estantzia pentsio erdian + piknika ibilbideak irauten duen bitartean.
- Gidaritza zerbitzua. Titulatutako mendiko gidaria (AEGM-UIMLA).
- Istripu eta erantzukizun zibileko aseguruak.
- AEGM - UIMLA mendi gidariaren ordainsariak.
- B.E.Z-a

EZ DA SARTZEN

- Bezeroaren bidai gastuak.
- Programaren aldetengatik (kontrolatu ezin diren egoerak direla eta, hala nola hondamendi naturalak, eguraldi edo atmosfera arazoak, eta abar) sortutako aparteko gastuak.
- Bezeroak egiten duen edozein erosketaren kostua.
- Aurreko "Prezioak Sartzen da" atalean zehaztu ez den edozein zerbitzu.

OHAR GARRANTZITSUA

Dokumentu hau ez da proposamenen informazio dokumentu bat, baizik eta apirila-maiatza eta uztaila-abuztua-iraila bitarteko jardueretarako aurreikusitako datekin egindako egutegi orientagarri bat.

Orain arte bezala, **proposamen bakoitzak bere informazio dokumentu osoa izango du**, eta hori prest dagoenean partekatuko da. Promozio ofiziala sare sozialen, webgunearen eta komunikazio kanalen bidez egingo da (Instagram eta WhatsApp).

DATAK ETA PREZIOAK

La Senda de Camille, Ruta de las Golondrinas eta 3000 Ibones zeharkaldien kasuan, datak oraindik ezin dira guztiz berretsi, estantziak kudeatzen duten enprekin koordinatu behar delako. Hala ere, jada jarri da harremanetan eta dokumentu honetan agertzen diren datak proposatu dira.

Helburua da data eta prezio guztiak urtarrilaren erdialde-rako edo amaierarako baieztatuta egotea (eta ahal bada, lehenago).

Bestalde, Bortziriak Xtreme, Midi d'ossauko itzulua eta Toubkal-eko bidaia urte amaiera baino lehen egongo dira eskuragarri.

TALDE TAMAINA

- Pirinioetako zeharkaldiak: gehienez 8 parte-hartzaile
- Gainerako jarduerak: gehienez 10-12 parte-hartzaile

IZENA EMATEKO LEHENTASUNA

Udako egutegian interesa erakutsi duzunez, gustuko dituzun proposamenetan zure izena eman dezakezu oraintxe bertan. Horrela, behin dokumentu definitiboak prest daudenean, posta elektronikoz jasoko dituzu zuzenean, promozio orokorra egin aurretik.

IZEN - EMATEAK

Proposamen batean parte hartzera animatzen bazara, jar zaitez nirekin harremanetan info@garmendi.eus helbidera mezu bat bidaliz edo WhatsApp bidez 647 29 61 04 zenbakira idatziz. Izena emateko formularioa eta erregistroa osatzeko beharrezko dokumentazioa bidaliko dizkizut.

Aldez aurretik eskerrik asko zeharkaldian interesa izateagatik. Espero dut proposamena zure gustukoa izan izana.

WHATSAPP - 647 29 61 04 (IBAI ITURRIA GARMENDIA)

info@garmendi.eus

Instagram - @_garmendi_ - @ibai_iturria_garmendia

